

# BATERA HEZI GARAPENEAN



BATERA HEZI GARAPENEAN  
COEDUCA EN DESARROLLO

IRAKASLEENTZAKO GIDA



Bizkaiko Foru  
Aldundia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

Fundación   
Fondo Formación





# Bibliografia

|  |    |
|--|----|
| 1. AURKEZPENA.....   | 3  |
| 2. KONTZEPTUEN AZALPENA.....   | 4  |
| 3. GENERO ESTEREOTIPOAK GAINDITZEA: HEZKIDETZA .....   | 8  |
| 4. BERDINTASUNAREN ETA HEZKUNTZAREN ALORREKO<br>ERREFERENTZIAZKO ESPARRU JURIDIKOA EUSKAL HERRIAN..... | 13 |
| 5. GARAPENERAKO HEZKUNTZA HEZKUNTZA FORMALAREN<br>EREMUAN TXERTATZEKO PROPOSAMENAK:.....               | 15 |
| 6. BALIABIDE TEORIKOAK.....  | 17 |
| 7.ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA.....  | 25 |



## 1. Aurkezpena

Fondo Formación Fundazioak, Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako “HEZKIDETZA GARAPENEAN II. FAÑEA” proiektuaren esparruan, honako Gida hau osatu du irakasle eta ikastetxeentzat, Garapenerako Hezkuntza generoaren ikuspegitik baliatuko duten ikastetxe hezkideen bidetik lan egiteko tresna teorikoak eta praktikoak eskura jartzeko eta horiez baliatzeko helburuarekin.





## 2. Kontzeptuen azalpena:

Atal honetan Hezkidetzarekin, Genero Berdintasunarekin eta Garapenerako Hezkuntzarekin zerikusia duten garrantzizko kontzeptu batzuk definitzen dira.

### Sexua-generoa sistema

Sexua-generoa sistemaren bitartez azaltzen da nola sortzen den sexu bakoitzarentzat sinesmen, balio, ohitura, arau, jarduera, aukera eta gizarte jokabide multzo bat, pertsona zer sexuarekin jaiotzen den harturik bereizketa horren oinarri bakartzat. Hau da, sexuak desberdintasun biologikoei erreparatzen die, eta generoa, berriz, gizarte egitura gisa definitzen da, denboraren eta gizartearen arabera aldatzen dena. Gure gizartean, eta baita beste gizarte askotan ere, sexuen arteko harremanak hierarkizatuta daude, hau da, emakumezkoa gizonaren mende egon da eta dago gaur egun ere, gizona koei egotzitako balioak eta ezaugarriak izan baitira, tradizioz, gizartean balio gehien izan dutenak. Ildo horretatik, emakumezko edo gizona jaiotzea erabakigarria da gizarte bakoitzak sexu bakoitzarentzat edo bestearentzat egokitzen hartzen dituen balioak eta arauak barneratzeko orduan; hortaz, generoaren bitartez finkatzen dira sexu bakoitzarengandik espero diren gaitasunak, rolak, itxaropenak eta ereduak. Hala, boterearen banaketari dagokionez, sexu baten eta bestearen artean dauden desberdintasunek eragina dute emakumezkoek eta gizona koe beren gaitasun pertsonalak, lanbideari dagozkionak eta sozialak gauzatzeko moduan.





## Genero rojak

Genero rojak ez dira prozesu naturala, prozesu ikasia baizik, eta beren baitan jokabide eredu desberdinak dituzte gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat. Emakumezkoek eta gizonezkoek ematen zaizkien ezaugarriak mugatzen dute pertsona bakoitzak generoaren arabera eduki behar dituen jokabideak. Ildo horretatik, eta adibide gisa, emakumezkoak sentiberak, ulerberak, zaindariak, eta abar izatea espero da. Gizonezkoak, aldiz, adoretzuak, arrakastadunak, gogorak, etab. izatea espero da. Hau da, femeninoa eta maskulinoa aurrez aurre jarrita definitzen dira, eta femeninoa maskulinoaren mendekotzat, azpikotzat, hartzen da beti. Genero rol horiek eguneroko egoeretan nabarmentzen dira, besteak beste emakumezkoek eta gizonezkoek emandako eta haien beren gain hartutako betebeharretan. Gizarteratzeko prozesu horretan, oso litekeena da bai neskek bai mutilek maskulinitate edo feminitate hartzen diren lanbideei erreparatzea.

## Estereotipoak

Estereotipoak aurrez osatutako ideiak dira, sinpleak, sakon errotuak, eta horiek mugatzen dute zer jokabide, jokaera eta jarrera eduki behar duten pertsonen, zer taldeetakoak diren kontuan hartuta. Era horretara, genero estereotipoak negatiboak dira bai emakumezkoentzat bai gizonezkoentzat, galarazi egiten baitie batzuei zein besteei ahalmen jakin batzuk garatzea (adibidez: gizonezkoentzat zailagoa da sentipenen eta emozioen alderdia garatzea, eta emakumeentzat, berriz, beren autonomia). Edonola ere, kontuan hartu behar dugu emakumezkoen estereotipoek gizonezkoen baino izen txarragoa dutela gizartean.

Emakumeen eta gizonen izaera ezaugarri biologikoek baldintzatzen dutela pentsatzeak ez du gaur egun inolako oinarririk, ez baitago feminitateari edo maskulinitateari loturiko ezaugarri edo bereizgarri unibertsalik. Begien bistakoa da batzuen eta besteen artean desberdintasun anatomikoak daudela, baina horiek ez dute izaera mugatzen, familiaren eta gizartearen arteko elkarreraginaren bitartez gizartean ehuntzen den prozesuaren emaitza baita nortasuna.



1. taula: Genero estereotipoak

| FEMENINOA     | MASKULINOA     |
|---------------|----------------|
| Naturaltasuna | Arrazoaia      |
| Pasibotasuna  | Indarkeria     |
| Gozotasuna    | Indarra        |
| Dependentzia  | Adimena        |
| Ahultasuna    | Aginpidea      |
| Intuzioa      | Sakontasuna    |
| Mendekotasuna | Nagusitasuna   |
| Arinkeria     | Aktibitatea    |
| Samurtasuna   | Inkonformismoa |
| Eroapena      | Jarraikitasuna |
| Otzantasuna   | Zakartasuna    |

1. taulan genero bakoitzari egokitu ohi zaizkion ezaugarrietako batzuk ikusten dira

### Androzentrismoa

Androzentrismoak unibertsoaren erdigunean jartzen du gizona, gauza guztien neurri gisa. Emakumezkoak eta gizonezkoak

lido horretatik, gizadiaren historia gizonezkoek idatzia izan denez, ezin izan dugu jakin zer ekarpen egin dituzten emakumezkoek, eta ikusezin bihurtu dira. Era horretara, sistema kulturala balio maskulinoetan oinarritu da, eta gizona gizadiaren ordezkari bihurtu da, hau da, historiaren protagonista.

### Genero ikuspegia

Generoaren ikuspegiak generoen arteko botere harremanak aztertzen ditu (genero maskulinoaren aldekoak oro har). Harreman horiek gizartearen baitan eta historian zehar eratzen joan dira, eta gizartearen egitura osoa zeharkatzen dute; gizarte egitura hori, aldi berean, beste gizarte harreman batzuen bitartez egituratzen da, hala nola klasea, etnia, adina, lehentasun sexuala eta erlijioa.

### Feminismoak

Hitz horrekin bereizkeria sexista modu oro errotik kentzeko teoriarik zein praktikan jarduten duten emakumeen gizarte eta politika mugimenduak izendatzen ditugu.

### Garapenerako hezkuntza (GH) 1:

HEGOAren garapenerako hezkuntzaren hiztegiaren arabera, GHk munduko errealitatean kontzientzia kritikoa sortzeko eta parte-hartzea eta gizartearen eraldaketarako tresnak emateko hezkuntza prozesuari

<sup>1</sup>“Diccionario de educación para el desarrollo”, Celorio, Gema; López De Munain, Alicia .-Gasteiz; Hegoa , 2007 125-127 orrialdeak



egiten dio erreferentzia, justiziaren eta solidaritatearen kodearen arabera. Garapenerako hezkuntzak herritartasun orokor kritikoa egituratu nahi du, ikuspegi politikotik aktiboa eta ikuspegi sozialetik planetako komunitate guztietako gizakien garapen zuzen eta bidezkoarekin konprometitua, (...). Pertsonak ikuspegi politikotik jarduteko gaitasunarekin kokatzea bilatzen duen hezkuntza proposamena da, hau da, errealitatearen azterketa kritikoak egiteko eta pertsona eta herri guztientzat garapen eredu askiesgarriak eta bidezkoak irudikatu eta proposatzeko gai. Era horretara, hezkuntza eraldaketarako, gizartea aldatzeko, premiazkoak diren giza gaitasun eta ahalmenetatik askatzeko jarduna bihurtzen da. Zentzu horretan, askatzailea da.

Giza garapenaren proposamenekin bat, garapenerako hezkuntzan pertsona da ardatza, hezkuntza pertsonak eratzen dituen prozesu gisa interpretatzen da, zeinetan subjektu eraldatzaileak diren aldetik, beren orainaz jabetzen dira beren etorkizuna eraikitzeko, erabateko prozesu baten, parte/hartzailearen eta etengabearen bitartez, eskolatik eta sistema formaletik haratago. (...) Genero ikuspegia garapenerako hezkuntzan nesken eta mutilentzako ikuspegi saihetsezinetako bat da, ez bakarrik jabetuntzarako proposamen gisa, baizik eta nortasunak eraikitzeko erronka gisa, berdintasunetik, erantzunkidetasunetik abiatuta, ordena patriarkala gainditzeko baliabide gisa eta ezagutza sistema androzentrikoei aurre egiteko estrategia gisa.







### 3. Genero estereotipoak gainditzea: hezkidetza

Laburtzeko esan liteke hezkidetza teoria feministek genero berdintasunaren alde egindako eskabideei erantzuten dion proposamen pedagogikoa dela, eta ezagutza eta ideiak prestakuntzarako eta ikaskuntzarako sozializazio guneetan generoaren ikuspegitik helarazteko eredu berregituratzea proposatzen du. Abiapuntutzat hartzen du ingurunea neutroa dela generoari dagokionez. Azken helburua gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanak eraldatzea da, berdintasun handiagoko eremu baten barruan, genero hierarkizazioa gaindituz.

Hezkidetzaren bitartez, garapen pertsonala bultzatzen da eta gizarte egitura komunak, aurrez aurre ez daudenak, bilatzen dira, hau da, pertsonak libre garatzen dira, beren sexuak baldintzatu gabe. Era horretara, bat egiten dute tradizioz maskulinoztat eta femeninoztat hartu izan diren jarrerak eta balioak, halako eran non sexu batekoek zein besteak onartu eta berenganatzen dituzte, sexismo kultural eta ideologikoa eta emakumearen desberdintasun soziala zuzenduz.

#### IKASTETXEEN ZENBAIT MUGA IKASTETXEAN HEZKIDETZARI HELTZEKO

Gaur egungo hezkuntza sisteman ez da erraza hezkidetzari ekitea. Edonola ere, bide luzea dago oraindik egiteko, eta ugari dira gainditu beharreko oztopoak, besteak beste eskolako espazioei eta horien banaketari buruzko mugak (Adibidez: jolas orduetarako espazioak, tradizioz oso maskulinizatuak) eta lan baldintzen ondoriozko mugak: eskola orduak, neska eta mutil kopurua ikasgelako, etab. Muga ugari dago, halaber, ikasgai guztietan hezkidetza zeharka lantzeko material egoki ezaren ondorioz (gaur egun dauden testu eta materialek modu androzentrikoan lantzen dute zientzia, historia, etab.)

Zenbaitetan, lan taldea bera edo ikastetxeko zuzendaritza da eragin mugatzailea duena gaiari dagokionez, interes edo lehentasun ezagatik.



## IKASTETXE HEZKIDERAKO BIDEAN

Pertsonaren ikuspegi orokorra (pertsonaren erabateko garapena bultzatu eta femenino eta maskulinoaren araberako hierarkizazio sozio-kulturala gaintzen duena) kontuan hartuko duen hezkidetza eredu berri bat eratzeko behar beharrezkoa litzateke gaur egungo eskola mistoa eraldatu eta hezkidetza eskola bihurtzea.

Hezkidetzak, beste hainbat gauzaren artean, ikasleen afektibitatearen eta sexualitatearen prozesuetan jartzen du arreta. Baina zeregin hori ez da eskolaren eremura mugatu behar, eta ez da bere baitara itxi behar, bereizkeriazko egoera argi bati eusten dioten gizarte egiturak eta ikusmoldeak eraldatzeko asmorik gabe. Ikastetxeak eskola komunitate osoa nahastu behar du zeregin horretan (irakasleak, auzoa, familiak, etab.), helburu komun batera iristeko koordinatu daitezten denak: genero berdintasuna. Hezkidetza irakaskuntzaren irtenbide globala da, zer irakasten dugun, nola irakasten dugun eta zergatik irakasten dugun zalantzan jartzen duen prozesua eragiten baitu.

Eskola hezkideak bizitzarako prestatzen du, eta eskolak bi eremu hauek uztartzen dituela hartzen du kontuan: eremu publikoa (historikoki maskulinoaren eremua) eta eremu pribatua (historikoki femeninoaren eremua), biak eremu pertsonalean oinarrituz.





## IKASTETXE HEZKIDEAREN BIDEAN JARDUTEKO PROPOSAMENAK

EMAKUNDEK<sup>2</sup> hezkidetzaren ereduaren arabera ikastetxeak antolatzeari buruz osatutako gidan, urrats hauek eskaintzen zaizkie irakasleei, besteak beste:

- Ikasleei gaitasun guztiak garatzea eragozten dieten rola maskulino eta femeninoak baneratzeko sortzen zaizkien aurreiritziak aztertu.
- Pertsona arteko harremanetan, gizartearen eta kulturaren eremuan, testuliburuetan, publizitateak eta komunikabideak helarazten dizkigun mezuetan (ikonografikoak eta ahozkoak) edozein egoera edo adierazpen sexistak edo baztertzailerik identifikatu eta modu kritikoa aztertu.
- Aniztasunaren eta norbanakoaren berezitasunak, kulturak eta herriak ezagutzeko interesa eta arreta landu, aniztasuna pertsonaren eta taldearen aberastasun iturri dela onartu.
- Giza eskubideen ezagutza bultzatu eta horiek zer egoeratan urratzen diren aztertu, horiek bete daitezkeen jardun, ikastetxeetan sortu ohi diren harremanen bitartez.
- Nork bere sentimenduak garatu eta azaldu baldintzatzen dituzten estereotipo maskulino eta femeninoetatik desidentifikatzen laguntzeko.
- Beren sentimenduak eta emozioak ezagutzen eta azaltzen lagundu, sentimendu negatiboak modu positiboan bideratu.
- Pertsonen arteko harremanetan (giro afektiboan, konfiantza-zekoan, errespetuzkoan, lankidetzan eta elkarrenganako laguntzan oinarrituta izaten direnean) sentitzen den pozaz jabetu daitezkeen lagundu.

---

2

[http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/pub\\_guias/es\\_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.cas.pdf](http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/pub_guias/es_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.cas.pdf)



- Afektibitatea, sentiberatasuna, samurtasuna, ontasuna, maitasuna, edertasuna, nesken zein mutikoen artean bultzatu.
- Adiskidetasuna, sinpatia, asebetetasuna eta maitasuna landu gure inguruko pertsonetikiko harremanetan eta maila unibertsalean.
- Gatazka egoerei elkarriketaren bitartez eta indarkeriarik gabe aurre egin, egoeraz jabetu daitezten eta irtenbide positiboak bilatu ditzaten.
- Autoestimua, autobalorazioa, nor bere buruan konfiantza bultzatu, halako eran non beren nortasuna eta beren bizitzaren proiektua eraiki dezaten.
- Aisiarako hainbat irtenbide aztertu eta baloratu, pertsoneri eta taldeei gehiago gozatzeko aukera ematen dieten beste batzuk sortuz.

### IDEIA PRAKTIKOAK:

Ikastetxeetan Hezkidetzaz txertatzeko, "Maisu jaun eta andreak. 130 proposamen hezkidetzarako"<sup>3</sup> gidan iradokitzen diren ideia praktikoa biltzen ditugu hemen:

**Antolatu hezkidetzaz tailerrak gurasoekin:** Familia da gizarteratzeko eremu garrantzitsuenetako bat, komunikabideekin eta eskolarekin batera. Jostailu eta ipuin ez sexistei buruz, etxeko lanen banaketari edo neska eta mutilerikiko harremanei buruz hitz egitea, bai familiei bai eskolari interesatzen zaizkien estrategiak dira.

**Sortu txoko feminista bat liburutegian:** Historiari, natur zientzietan, literaturari edo biografiei buruzko lanekin. Astearen behin, liburu bat gomendatzen duen kartel bat egin dezakezu. Beste aukera bat izan liteke aitona-amonekin hezkidetzaz oinarritutako ipuin kontalariak antolatzea edo gomendatutako liburuaren eguna antolatzea, ikasle bakoitzak ikaskide bati emakumea protagonista duen liburu bat uzteko.

**Ospatu martxoaren 8ko astea:** urtero, ikastetxe osoak gai baten inguruan lan egin dezake: emakumeak historian, emakumeen jakintzak...

---

<sup>3</sup> "Señoras maestras y Señores maestros. 130 propuestas para la coeducación" FETE-UGT. 28-29. orrialdeak



**Bideoforuma ikuspegi feministarekin:** Neskei zein mutilei interesatzen zaizkien gaiei buruz hitz egiteko, hala nola, harreman afektiboak, belaunaldi arteko gatazkak, nortasunen garapena.

**Ikastetxeko bizikidetza planean eta araudian neurri bereziak txertatu** genero indarkeriari aurre egiteko eta nesken eta mutilen arteko errespetua bultzatzeko.

**Antolatu aipatzen ez den munduari buruzko astea:** Aste betean neska-mutilek etxeko bizitzarako estrategia erabilgarriak ikasiko dituzte, hala nola, sukaldean egin, garbitu edo josi. Aste horretan zehar, beste balio batzuk ere uztartu daitezke, hala nola, garapenerako lankidetza, beste kultura batzuk ezagutzea eta ingurumena errespetatzea.

**Hezkuntza afektibo-sexualaren tailerrak antolatu:** Emozioen, hazkuntza pertsonalaren, gorputzaren, nortasunaren, gatazken konponketaren eta harreman sexualen eta afektiboen izaerari buruz hitz egiteko eta gai horiei buruzko zalantzak argitzeko lekua. Tailer horiek hamabi pertsonako taldeetan egin litezke, komunikazio handiagoa lortzeko moduan. Garrantzi berezia dute hainbat kulturatako ikasleak elkarrekin dauden ikastetxeetan. Hitz egiteak eta harremanak edukitzeak nortasun indartsuak eta seguruak osatzen laguntzen du.

**Lanbide orientazio ez arrazista eta ez sexistarako programak osatu**

Prestakuntza eta lanbide ibilbide bat hautatu behar duten neska eta mutilentzat garrantzizkoa da emakume eta gizon bezala egin behar dutenari buruzko hautaketa estereotipuetara bultzatzen dieten oztopoak ezabatzea. Hitzaldiak antolatu hainbat sektoretan diharduten gurasoekin, zalantzak argitu eta erabakiak hartzen lagunduko dieten informazioa eskaini, benetako gaitasunak eta asmoak kontuan hartuz.



## 4. Berdintasunaren eta hezkuntzaren alorreko erreferentziazko esparru juridikoa Euskal Herrian

| <b>Berdintasunaren eta hezkuntzaren alorreko erreferentziazko esparru juridikoaren laburpen taula</b> |  |
|---|--|
| <b>Esparru juridikoa hezkuntzaren eremuan</b>   |  |
| 1.  | Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legea.  |
| 2.  | Hezkuntzaren 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa.   |
| 3.  | Unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko 201/2008 dekretua.  |
| <b>Berdintasun politiken eremuko esparru juridikoa</b>  |  |
| 1.  | Genero indarkeriaren kontrako erabateko babes neurrien abenduaren 28ko 1/2004 Legea.   |
| 2.  | Emakumezko eta gizonezkoen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea.  |
| 3.  | Emakumezko eta gizonezkoen berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Legea.   |
| 4.  | Emakumezko eta gizonezkoen berdintasunerako VI. Plana EAEn.  |
| 5.  | Erakundeen arteko II. akordioa etxean tratatu txarren eta indarkeria sexualaren biktima izan diren emakumeen arreta hobetzeko.               |
| 6.  | Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako gomendioa, CM/Rec (2007) 13, generoaren dimentsioa hezkuntzaren alorrean txertatzeari buruzkoa. |
| 7.  | Genero nortasunaren arrazoiengatik bereizkeria ez egiteari eta transexualen eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 legea.     |

Iturria: Hezkidetza eta hezkuntza sisteman genero indarkeriari aurre egiteko Plan Zuzentzailea.

Esparru honetan ezinbestekoa da Hezkidetzarako eta Hezkuntza sisteman genero indarkeriari aurre egiteko Plan Zuzentzailea aipatzea. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailak bultzatua izan da eta hezkuntza sistemari zuzendua, zehazki derrigorrezko irakaskuntzari (Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza), Haur Hezkuntzari eta Batxilergoari zuzendua, 2013-2014 ikasturtetik 2015-2016 ikasturtera bitarteko eperako. Plan horren helburua da “eskola mistoaren eredua eskola hezkidearen eredura aldatzeko bidean aurrera jarraitzea, genero indarkeriari eta, azken batean, sexismoan jatorria duen edozein indarkeria motari aurre egiteko”<sup>4</sup>.

<sup>4</sup> Hezkidetzarako eta hezkuntza sisteman genero indarkeriaren prebentziorako Plan Zuzentzailea. Eusko Jaurlaritza.





## 5.-Garapenerako hezkuntza hezkuntza formalaren eremuan txertatzeko proposamenak:

Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren “LA EDUCACIÓN PARA EL DESARROLLO EN EL ÁMBITO FORMAL, ESPACIO COMÚN DE LA COOPERACIÓN Y LA EDUCACIÓN – PROPUESTAS PARA UNA ESTRATEGIA DE ACCIÓN INTEGRADA” argitalpenean (59-63 orrialdeak), egileek zenbait urrats proposatzen dituzte Garapenerako Hezkuntza ikastetxeetan txertatzeko. Proposamen horietako batzuk hartu eta gida honi erantsi dizkiogus:

Garapenerako Hezkuntzaren arduradunak/dinamizatzaileak izendatzea hezkuntzaren eta curriculumaren finkapenean erantzukizuna duten mailatan (Hezkuntza Ministerioa, Sailak, Ordezkaritzak, Irakasleentzako Prestakuntza Zentroak, Ikastetxeak) eta koordinazio eta dinamizazio taldeen bitartez horien lotura bultzatzea.

Departamentuen arteko hitzarmenak sustatzea, bai erakundeen egituren bai ikastetxeetan.

Garapenerako Hezkuntza bultzatzea irakasleen prestakuntza etengabearen bitartez (haur hezkuntzatik hasi eta batxilergora bitartean) (...) eta Hezkuntzako Administrazio Publikoekin, Irakasleentzako Prestakuntza Zentroekin, gobernuz kanpoko erakundeekin, unibertsitateekin, etab. lotura duten pertsonen beren prestakuntza eguneratu dezaten bultzatzea.

Talde mistoen sorrera sustatzea (irakasleak, GKEetako kideak eta gizarte mugimenduak), ikerketarako, metodologiaren berrikuntzarako eta eredu didaktikoak (curricularrak eta curruculuz kanpokoak) sortzeko, eta Garapenerako Hezkuntzaren ebaluazioa lantzea.

Irakasleei aldi baterako liberatzeko aukera eskaintzea materialak osatzeko, metodologia berritzeko edo Garapenerako Hezkuntzan ikertzeko lanak dinamizatze edo koordinatze.

---

<sup>5</sup> La Educación para el Desarrollo en el ámbito formal, espacio común de la Cooperación y la Educación – propuestas para una estrategia de acción integrada” Valentziako Unibertsitate Politeknikoa (59-63 orrialdeak) 2004.



Garapenerako Hezkuntzaren trukea, eztabaida eta zabalkundea egiteko jarduerak babestea, kongresuen, jardunaldien, mintegien eta irakasle sare tokikoen, nazionalen edo nazioarteko (Iparra-Hegoa) bitartez.

Garapenerako Hezkuntzaren alorreko material didaktiko berezien sorkuntza eta homologazioa sustatzea hezkuntzaren maila guztietan, haur hezkuntzatik hasi eta batxilergoa bitartean.

Administrazio Publikoetatik Garapenerako Hezkuntzako materialen katalogazioa eta sistematizazioa bultzatzea, irakasleen Prestakuntza Zentroen bitartez, eta dagoeneko martxan dien Garapenerako Hezkuntzaren Baliabide eta Dokumentazio Zentroak bultzatzea, halako zerbitzuak ez dituzten hartzaileengana iritsiko diren beste zentro berrien etengabeko sorkuntza bideratuz.







## 6. Baliabide teoriko-praktikoak:

Atal honetan Garapenerako Hezkuntzari, Generoari eta Hezkidetzari buruzko informazio teorikoa (online formatuan dagoena eta atxikitutako UŠBan eskugarri daudenak) eskaini nahi da.

### Garapenerako hezkuntza

“Garapenerako hezkuntza unibertsitatean: pentsamendu eraldatzailea: ezagutza eraikitzeko ikuspegi alternatiboa”, López, Ainhoa ; Varela, Irantzu ; Von Sanden, Cecilia, Bilbo, Euskadiko Elkarbidea, 2010 . Gaztelania, Euskara

#### Laburpena:

Argitalpen honen edukia gaur egungo sistemaren funtzionamenduarekin bat ez datozen eta unibertsitateak tokiko giza garapenean eta garapen globalean garrantzizko funtzioa duela uste duten irakasleentzat pentsatua da.

UŠBan Eskugarri: *Garapenerako Hezkuntza; El Pensamiento Transformador.*

“Educación para la ciudadanía global: debates y desafíos”. Argibay, Miguel; Celorio, Gema; Celorio, Juan José; Garagalza, Ainhoa; López De Munain, Alicia, Bilbao, Hegoa, 2009. Gaztelania.

Laburpena: Txosten honetan azaltzen da nola hartu izan den XVIII. mendeaz geroztik eta gaur egun arte hezkuntza herritartasunaren ideia sustatzeko tresna erabakigarria, eta zer aldaketa izan dituen bilakaera horretan, dagokion testuinguru politiko eta ekonomikoaren arabera. Era berean, herritartasunak gaur egungo testuinguruan estatuetako eta estatuiz gaindiko mugen arabera sortzen dituen tentsioak eta kontraesanak azaltzen dira.

UŠBan eskugarri: *Garapenerako Hezkuntza; Herritartasuna-eztabaida*



“Diccionario de educación para el desarrollo”, Celorio, Gema; López De Munain, Alicia .-Vitoria-Gasteiz: Hegoa , 2007 -. Gaztelania.

**Laburpena:** Garapenerako Hezkuntzari buruzko Hiztegi bat osatzeko ideia funtsezko hainbat kontzeptu (gaur egungo testuinguruan gertatzen ari diren aldaketen erritmoan sortu diren beste hainbat kontzeptu berri ulertzeko aukera emango digutenak eta aliantzak eta talde lanerako sareak osatzeko ezinbestekoa den hizkuntza komuna partekatzeo aukera emango digutenak) finkatzeko aukera emango diguten ideietan sakontzen eta trukutzen jarraitzeko ekimen bat da.

USBan eskugarri: *Garapenerako Hezkuntza; GHHiztegia*

“Educación para el desarrollo y la ciudadanía global (EPDCG) guía para su integración en centros educativos”. Aguado, Guillermo (Koor.); Morillas, M<sup>a</sup> Dolores; De Blas, Alicia; Villanueva, Encina (et al) AECID.

**Laburpena:** Erreferentziazko esparru teorikoa eskaintzen du, Garapenerako eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza txertatzeko prozesu eta ekimenei laguntzeko, Ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuen baterako ikuspegiarekin.

USBan eskugarri: *Garapenerako Hezkuntza; PublicacionEpDCGFinal*

## Generoa eta Garapenerako Hezkuntza

“Educación para el desarrollo con perspectiva de género: una apuesta local para el compromiso global”, Cuentas Ramírez, Sara .- Bartzelona: InteRed , 2009 ..- Gaztelania

**Laburpena:** Testuinguru horretan, InteRed gizartea eraldatzeko Garapenerako Hezkuntzaren gai nagusietara hurbiltzen da, eta orobat hurbiltzen da teoria feminista hezkuntza prozesu horretan isiltzearen zergatietara eta ondorioetara; halaber, generoaren ikuspegia herritartasun global kritiko bat eraikitzeo prozesuan txertatzeko hainbat premisa proposatzen ditu. Eta horren emaitza da argitalpen hau, eta bertan gonbita egiten die GKEEei, hezkuntza komunitateari, gizarte



mugimenduei eta lankidetzaren alorreko beste eragile batzuei gure jardunak zalantzan jar ditzaten eta hierarkia patriarkalarekin amaituko duten beste irtenbide eraginkorrak asma ditzaten.

UŠBan eskugarri: Generoa eta Garapenerako Hezkuntza; EPDGenero

“Generoa Garapenerako Hezkuntzan: estrategia politikoak eta amodelogikoak” Cabello, Inmaculada ; Tomas, Sonia ; Perricer, Llum ; Rodriguez, Alicia ; Argibay, Miguel ; Antolin, Luisa .- Bilbo, : Hegoa , 2009 ..-. GaZtelania, Euskara

**Laburpena:** Lan honen asmoa da urrats bat gehiago ematea GKEEK Garapenerako Hezkuntzan generoaren ikuspegia barneratzeko eta sentzibilizatzeko ibilbidean.

Ekarpen apala eta soila da, kontzientzia kritiko feminista sortzera bideratua, eta orobat idatziz jasota utzi nahi duena hierarkia patriarkalarekin amaituko duten eta gizartearen eraldaketa erraztuko duten irtenbideak hezkuntzaren eremuan lan egiten duten erakundeen lanetik abiatuta osa daitezkeela, eta ez bestela.

UŠBan eskugarri: Generoa eta Garapenerako Hezkuntza; Manual Genero ED

“Vidas paralelas de las mujeres de sur a norte: guía didáctica de educación para el desarrollo”. Argibay, Miguel; Celorio, Gema; Celorio, Juan José.- Bilbo: Hegoa , 1998 ..-. GaZtelania.

**Laburpena:** “VIDAS PARALELAS” gida didaktiko bat da, eta helburu nagusia du munduko emakumeen ekarpen sozio-ekonomikoak eta kulturalak ikusgai bihurtzea irakasleen eta ikasleen begietara. “VIDAS PARALELAS”, halaber, hezteko tresna bat da, eta baita neska eta mutilak kontzientziatzeko tresna ere.

UŠBan eskugarri: Generoa eta Garapenerako Hezkuntza; Vidas paralelas de las mujeres.

“Género en la Educación para el Desarrollo Interculturalidad-  
ABRIENDO LA MIRADA- Pueblos indígenas, Soberanía alimentaria,



Educación para la paz- EHU, Hegoa eta ACSUR-Las Segovias-. Eusko Jaurlaritzza eta AECID.

**Laburpena:** Argitalpen honek lau gai hauetan jartzen du arreta: Kulturartekotasuna, Herri indigenak, Elikadura subiranotasuna eta Bakerako hezkuntza.

Gaur egun GKEEn baitan, hezkuntzaren komunitatean, gizarte mugimenduetan eta lankidetzaren beste eragileen baitan gai horiei buruz sortzen ari diren eztabaidetan emakumeen eta gizonen azterketa eta eragin berezia kontuan hartzea eta generoaren ikuspegia kontuan hartzeko lan egitearen garrantzia azpimarratzea da azken helburua, izan ere, ez bada horrela egiten azterketa horiek partzialak dira eta osagabeak izaten jarraitzen dute.

USBan eskugarri: *Generoa eta Garapenerako Hezkuntza; Género en ED*

“La mitad invisible, Género en la Educación para el Desarrollo”. Antolín, Luisa; Aguilar, Tusta, Simón, M<sup>o</sup> Elena, et al. ACSUR-Las Segovias. Madril

**Laburpena:** Generoaren ikuspegia gaiaren hurbilpen bikoitzaren bitartez Garapenaren Hezkuntzan txertatzeko prozesuan aurrera egiteko asmoan kokatzen da argitalpen hau: hurbilpen kontzeptuala eta praktikoa.

Helburu nagusi bat du, hain zuzen ere, zenbait kontzeptu argitzea, Generoari eta Garapenaren Hezkuntzari buruz hitz egiten dugunean zeri buruz ari garen jakitea, eta aurrera egiteko aukera emango digun gutxieneko ulermen komun batetik abiatzea. Bigarren atalean, Generoaren ikuspegia Garapenaren Hezkuntzan txertatzeko zenbait giltzarri eta tresna biltzen dira.

USBan eskugarri: *Generoa eta Garapenerako Hezkuntza; lamitadinvisible*

## Hezkidetza

“Afektibitatea eta hezkidetza lehen hezkuntzan. Curriculum materialen bilduma” Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 2003.



**Laburpena:** Eskain itzazu tresna didaktikoak generoaren ikuspegia curriculumeko gaietan txertatzeko tresna didaktikoak eskaintzen ditu.

**USBan eskugarri:** Hezkidetza; Afecto EUSK

**GRUPO DE TRABAJO DEL CPR DE GIJÓN, Materiales para la observación y el análisis del sexismo en el ámbito escolar, Hezkuntza eta Kultura Saila eta Gijóngo CPR, 2002.**

Gijóngo CPRn irakasle talde batek ikastetxeetan sexismoari buruzko behaketa egiteko osatutako fitxak dira; aurreko liburuen eskema berari jarraitzen dio funtsean, baina askoz ere eguneratuago dago. Fitxak aplikatzen errazak dira.

**USB:** Hezkidetza; Análisis sexismo

**EMAKUMEAREN NAFARROAKO INSTITUTUA, Aportaciones teórico-prácticas para el conocimiento de actitudes violentas en el ámbito escolar, 2002.**

Oso azterketa serioa eta zorrotza da, Nafarroan DBHko ikasleei generoaren ikuspegitik egindako galdetegietan oinarritua; eskolako indarkeria ikuspegi horretatik lantzen duten liburu gutxietako bat da. Oso interesgarria da gaurkotasan handikoa delako eta emaitzak edozein komunitatera estrapolatu daitezkeelako. Egindako galdetegiak eta emaitzak oso modu argian aurkezten ditu.

**USBan eskugarri:** Hezkidetza; Teórico-prácticas

**“El diario violeta de Carlota”, Lienas, Gemma, Alba arg., 2001.**

Gazte literaturako eleberri bikaina, ikasgelan sexismoaren gaia lantzeko. Argumentuak berak eskoletan erabilgarria izan litekeen jarduera bat proposatzen du. Amaieran hiztegi txiki bat sartzen da, eleberrian erabiltzen diren hitzekin. Interesgarria eta atsegina nerabeentzat.

**USBan eskugarri:** Hezkidetza; Diario Violeta





“Educación afectivo-sexual adolescencia y Violencia de Género, Materiales didácticos para la Coeducación”. Fernández, Liliana; Sampedro Díaz, Pilar. Lehendakaritza Saila, Asturiasko Emakumearen Institutua.

USBan eskugarri: *Hezkidetza; Afectivo-Sexual*

## Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko elkarte sarea Bizkaian

### Fondo Formación Fundazioa

Helburua gizarte bazterketaren eta desberdintasunaren kausei aurre hartzea eta ezabatzea da, eta orobat gizarteratzea eta lan munduan integratzea bultzatu eta sustatzea eta bazterketa arriskuan dauden pertsonen eta taldeen garapen askea garatzea.

Horretarako, gizarte eremuko hirugarren sektoreko administrazio, erakunde eta entitateekin elkarlanean jarduten dugu.

Helbidea, San Bizente errepidea, 10 km. 48510 Trapagaran, Bizkaia

Telefono zenbakia: 944 724 729

Helbide elektronikoa: [info@fondoempleo.net](mailto:info@fondoempleo.net)

Webgunea: <http://fundfondoformacion.wix.com/fundacionff#!>

### Emakunde: Emakumearen Euskal Institutua

Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuaren oinarritzko helburua emakumezkoen eta gizonezkoen arteko benetako berdintasuna eta berdintasun eraginkorra lortzea da, Euskal Autonomia Erkidegoko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren eremu guztietan. Bertako lehentasunetako bat da Berdintasunerako Legea betetzen dela zaintzea. 2005ean arau hura onartzea mugarri historikoa izan zen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde gure komunitatean.

Helbidea: Manuel Iradier kalea, 36 01005 Gasteiz (Araba)

Telefono zenbakia: 945 - 01 67 00

Helbide elektronikoa: [emakunde@ej-gv.es](mailto:emakunde@ej-gv.es)

Webgunea: <http://www.emakunde.euskadi.net/u72-home/es/>



## **Centro de Documentación de la Mujer Maite Albiz = Maite Albiz Emakumeen Dokumentazioa Zentrua**

Emakumeen Dokumentazio Zentroen eta Liburutegien sarea 1994an sortu zen. Sare hori ez dago administrazioko erakundeen mende. Honako hauek ditu helburuak: kideen arteko lankidetzaren sustatzea, lan komunen tresnak osatzea, indexatze hizkuntza ez sexistak erabiltzea, zentroak eta funtsak zabaltzea, informazioaren kudeaketa sistema berrien erabilera eta garapena bultzatzea eta antzeko beste sareekiko trukea sustatzea.

**Helbidea:** Pilota kalea, 10, 2. A 48005-Bilbo

**Telefono zenbakia:** 94. 416.23.37

**Helbide elektronikoa:** [zentroa@emakumeak.org](mailto:zentroa@emakumeak.org)

## **Clara Campoamor Elkarte**

Clara Campoamor Elkarte 1985ean sortu zuen mugimendu feministako emakume talde batek, EMAKUMEAREN ESKUBIDEAK defendatzeko premiak bultzatuta, horiek etengabe urratzen diren testuinguruan, bai lanaren munduan bai mundu profesionalean, osasunaren, kulturaren edo familiaren eremuan, zein delitu sexualen eta erasoen biktima diren emakumeen babesik eza dela eta.

**Helbidea:** Ertzila kalea, 13, 4. ezk. 48009 Bilbo

**Telefono zenbakia:** 94 423 91 55

**Helbide elektronikoa:** [consulta@ClaraCampoamor.com](mailto:consulta@ClaraCampoamor.com)

**Webgunea:** <http://www.ClaraCampoamor.com/>

## **Mujeres del Mundo-Babel**

Mujeres del Mundo-Babel EMAKUME talde bat da, batzuk hemen jaiotak eta beste batzuk beste leku batzuetatik iritsiak, eta 1999. urteaz geroztik elkartzen dira, denek ekarpen ugari dutelako eta ekarpen horiek trukatu nahi dituztelako.

**Helbidea:** Fika, 5. 48006 Bilbo

**Telefono zenbakia:** 94 400 54 17

**Helbide elektronikoa:** [babelmujeres@gmail.com](mailto:babelmujeres@gmail.com)

**Webgunea:** <http://mujeresdelmundobabel.org>



## Baliabide praktikoak (Taldeko dinamikekin, ikus-entxunezko materiala, etab. duten webguneak)

### **GKEE Euskadiren Koordinakundea**

Euskadiko GGKEen Koordinakundea 1988an sortu zen kide diren GGKEen jarduerak ahalik eta koordinatuenak, koherenteenak, egokienak eta errespetuzkoenak direla ziurtatzeko, eta horrek berekin dakar elkarren artean, hausnartzea, eztabaidatzea eta lan egitea.

<http://www.ongdeuskadi.org/>

### **Bandaba-Hezkuntza laboratorioa:**

Garapen eta Elkartasun Hezkuntzari buruzko dokumentuak osorik, gune honetan aurki daitezke, baita, irakas baliabideen erreferentziak, horretaz gain, ikastetxeentzako gunea ere badu, hezkuntzarako esperientziak trukatzeko eta jakinarazteko.

<http://www.bantaba.ehu.es/lab/cont/index>

### **Edualter:**

Hezkuntza eraldatzaileraren inguruan errekurtsoak elkartrukatzeko gunea.

<http://www.edualter.org/index.htm>

### **Garapenerako irakasleak:**

Garapenerako Hezkuntzaren alde dauden irakasle talde batek sortutako gunea.

<http://docentesparaeldesarrollo.blogspot.com.es/>

### **Hegoa:**

Hegoa irabazi-asmorik gabeko erakundea da eta bere izaera bikoitzetik – institutu unibertsitario eta elkarte – giza garapena sustatzeko lanean aritzen da.

[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)





## 7.ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- “Señoras maestras y Señores maestros. 130 propuestas para la coeducación” FETE-UGT. 28-29 orrialdeak.
- Valentziako Unibertsitate Politeknikoaren “La Educación para el Desarrollo en el ámbito formal, espacio común de la Cooperación y la Educación – propuestas para una estrategia de acción integrada” 2004, 59-63. orrialdeak.
- “Hezkidetza eta hezkuntza sisteman genero indarkeriari aurre egiteko Plan Zuzentzailea”. 2013, Eusko Jaurlaritzza.
- “Diccionario de educación para el desarrollo”, Celorio, Gema; López De Munain, Alicia .-Gasteiz: Hegoa , 2007. 125-127 orrialdeak

## WEBGRAFIA

- [http://fongdcam.org/manuales/genero/datos/docs/1\\_ARTICULOS\\_Y\\_DOCUMENTOS\\_DE\\_REFERENCIA/A\\_CONCEPTOS\\_BASICOS/CONCEPTOS\\_BASICOS.pdf](http://fongdcam.org/manuales/genero/datos/docs/1_ARTICULOS_Y_DOCUMENTOS_DE_REFERENCIA/A_CONCEPTOS_BASICOS/CONCEPTOS_BASICOS.pdf)
- [http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/pub\\_guias/es\\_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.cas.pdf](http://www.emakunde.euskadi.net/contenidos/informacion/pub_guias/es_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.cas.pdf)



## BATERA HEZI GARAPENEAN COEDUCA EN DESARROLLO

“Bizkaiko Foru Aldundiaren (BFA) finantza sostenguari esker egindako dokumentazioa da hau. *Fundación Fondo Formación* erakundeari besterik ez zaio honen edukia zor, erantzukizun eksklusiboa baitauka. Hau dela eta, BFA-en iritziak ez dute bat etorri behar iragarkiaren edukiarekin”